



1. Aukeratu altxor gisa erabiliko duzuen objektua eta ezkuta ezazu. Ezkutalekua zuk bakarrik ezagut dezakezu.

2. Hautatu abiapuntua eta marraztu mapa batean abiapuntu horretatik altxorra ezkutatuta dagoen puntura arteko bidea, argibide eta erreferentzia-puntuak ahaztu gabe (argazkiak ere gehi ditzakezu!).



3. Eman mapa eta altxorra aurkitzeko beharrezko argibideak beste pertsona bati.



4. Altxorra bilatzera! Altxorra aurkitzea lortzen badu, bikain! Bestela, hobetu mapa eta saiatu berriro.



5. Oso ondo! Orain prest zaude mapa berriak egiteko edo geozkutalekuak erabiltzeko!

Zer behar dugu?

- Fitxa
- Objektu bat (altxorra)
- Marraztu eta idazteko tresnak

Zer landu nahi dugu?:

- Eremu batean orientatzea, erreferentzia-sistema bati jarraikiz.
- Ibilbide errazak irudikatu eta gogoratzea.
- Posizioarekin lotutako hiztegia ulertu eta erabiltzea: ondoan, artean, aurrean, atzean, ezkerrean, eskuinean, gainean, azpian, etab.
- Elementu errealak marrazki batean irudikatzea.
- Denborarekin lotutako hiztegia modu ordenatuan adieraztea: lehenbizi, ondoren, gero, lehenago, etab.
- Distantziak konparatzea eta konparazioak egiteko hiztegia erabiltzea: hurbilago, urrunago, gorago, etab.
- Distantziak neurtzea (pausotan edo metrotan).
- Argibideak diseinatu eta idaztea (pentsamendu konputazionala).

Galdera aberatsak (7 urte arte):

- Abiapuntua erreferentziatzen hartuta, zer objektu dago hurbilago altxorra bera baino?
- Erabili al duzu posizioarekin lotutako hitzik, hala nola ondoan, artean, aurrean, atzean, ezkerrean, eskuinean, gainean, azpian, lehenbizi, ondoren, gero, lehenago, hurbilago, urrunago, gorago, etab.?
- Nola deskribatuko zenuke ibilbidea hitzekin soilik?
- Zure ustez, zenbat urrats ditu ibilbideak? Egiazta ezazu! Izan al liteke laburragoa?

Galdera aberatsak (8 urtetik aurrera):

- Zure ustez, zenbat metro ditu ibilbideak? Eta zenbat denbora uste duzu behar dela altxorra ezkutatuta dagoen puntura iristeko? Nola egiaztatuko zenuke? Aurrera!
- Bi datu horiek kontuan hartuta, nola lortuko zenuke ibilbidea egiteko behar den batez besteko abiadura?
- Pentsatu duzun ibilbidea egin daitekeen bakarra al da? Izan al liteke laburragoa (distantziari zein denborari dagokionez)?
- Beste zer tokitan egon liteke altxorra abiapuntuarekiko distantzia berbera izan dadin?

Aurkitu al duzu altxor ezkutua? Eta zuk, lortu al duzu erronka gaitza? Parteka ezazu gurekin sare sozialetan traol-hitz hau erabiliz: [#InnovamatSummer](#). Gozatu uda matematiko honetaz!

